



ESKOLAGUNE

Ekoetxea Meatzaldea

Meategiak eta biodibertsitatea

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

ARLO/IKASGAIA: Natur Zientziak, Geografia eta Historia

ARLO/IKASGAI ERLAZIONATUAK: Balio Zibikoak, Heziketa Fisikoa

"Naturak kontraerasoa egin du La Arboledan, eta bere burua defendatzen du gizakiaren erasoen aurrean". Ez itxaron gehiago antzinako meatze-paisaia baten birsorkuntzaren ondoriozko biodibertsitate-ikuskizun bat ikusteko. Baina berreskuratze horrek aurrera egin dezan, zuen laguntza behar dugu. Sariak merezi du: gizaki eta natura orekan biziko diren planeta iraunkorra.